



JOAN DA TOLOSAKO UDARAKO AZKEN FESTA

Euskal Herria Plazan jarri duten hondartzan futbolean eta boleibolean ibili dira herritarrek azken egunotan »5

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Igandea
2010-09-05

VIII. URTEA 2.066. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Eskualdeko mendizaleak Pakistanen. HITZA

PEREDA, SALSAMENDI, TELLERIA, ULAZIA ETA USANDIZAGA
PAKISTANEN EGON DIREN MENDIZALEAK

«Hona etorri arte ez dugu
ondo jakin zer gertatu zen»

GIZARTEA Pakistango hondamendiari aurre egiteko
Felix Baltistan Fundazioak hiru kontu korrante zabaldu ditu 6-7

**Gazte Asanbladako belaunaldi
berriari jai giroan eman diote
ongiectorria IX. Gazte Egunean**

ANOETA Goizean asanblada egin dute gaztetxeko kideek eta iazko
balantzeaz gain aurrera begirako urratsak aztertu dituzte 5

Eskualdean agur usaina hartu dute festa desberdinek

JAIK Alkizan, Elduainen, Lizartzan eta Izaskun
auzoan egitarauak azken txanpan aurkitzen dira 4



Izaskun auzoan eta Elduainen jaietan jarraitzen dute. I. GARCIA

MUNDUAN DAGO ZURE ETORKIZUNA



Matrikula irekia!
Eskolak irailak 15ean hasiko dira!

Hizkuntza desberdinen aukera zabala:
ingelesa, euskera, frantsesa, alemaniera, italiera...
Hitano ikastaroak

www.elduaien.com

BOGANDA - GIBERRETA - 1991-1992-1993-1994-1995-1996-1997-1998-1999-2000-2001-2002-2003-2004-2005-2006-2007-2008-2009-2010-2011-2012-2013-2014-2015-2016-2017-2018-2019-2020-2021-2022-2023-2024-2025-2026-2027-2028-2029-2030-2031-2032-2033-2034-2035-2036-2037-2038-2039-2040-2041-2042-2043-2044-2045-2046-2047-2048-2049-2050-2051-2052-2053-2054-2055-2056-2057-2058-2059-2060-2061-2062-2063-2064-2065-2066-2067-2068-2069-2070-2071-2072-2073-2074-2075-2076-2077-2078-2079-2080-2081-2082-2083-2084-2085-2086-2087-2088-2089-2090-2091-2092-2093-2094-2095-2096-2097-2098-2099-2100-2101-2102-2103-2104-2105-2106-2107-2108-2109-2110-2111-2112-2113-2114-2115-2116-2117-2118-2119-2120-2121-2122-2123-2124-2125-2126-2127-2128-2129-2130-2131-2132-2133-2134-2135-2136-2137-2138-2139-2140-2141-2142-2143-2144-2145-2146-2147-2148-2149-2150-2151-2152-2153-2154-2155-2156-2157-2158-2159-2160-2161-2162-2163-2164-2165-2166-2167-2168-2169-2170-2171-2172-2173-2174-2175-2176-2177-2178-2179-2180-2181-2182-2183-2184-2185-2186-2187-2188-2189-2190-2191-2192-2193-2194-2195-2196-2197-2198-2199-2200-2201-2202-2203-2204-2205-2206-2207-2208-2209-2210-2211-2212-2213-2214-2215-2216-2217-2218-2219-2220-2221-2222-2223-2224-2225-2226-2227-2228-2229-2230-2231-2232-2233-2234-2235-2236-2237-2238-2239-2240-2241-2242-2243-2244-2245-2246-2247-2248-2249-2250-2251-2252-2253-2254-2255-2256-2257-2258-2259-2260-2261-2262-2263-2264-2265-2266-2267-2268-2269-2270-2271-2272-2273-2274-2275-2276-2277-2278-2279-2280-2281-2282-2283-2284-2285-2286-2287-2288-2289-2290-2291-2292-2293-2294-2295-2296-2297-2298-2299-2300-2301-2302-2303-2304-2305-2306-2307-2308-2309-2310-2311-2312-2313-2314-2315-2316-2317-2318-2319-2320-2321-2322-2323-2324-2325-2326-2327-2328-2329-2330-2331-2332-2333-2334-2335-2336-2337-2338-2339-2340-2341-2342-2343-2344-2345-2346-2347-2348-2349-2350-2351-2352-2353-2354-2355-2356-2357-2358-2359-2360-2361-2362-2363-2364-2365-2366-2367-2368-2369-2370-2371-2372-2373-2374-2375-2376-2377-2378-2379-2380-2381-2382-2383-2384-2385-2386-2387-2388-2389-2390-2391-2392-2393-2394-2395-2396-2397-2398-2399-2400-2401-2402-2403-2404-2405-2406-2407-2408-2409-2410-2411-2412-2413-2414-2415-2416-2417-2418-2419-2420-2421-2422-2423-2424-2425-2426-2427-2428-2429-2430-2431-2432-2433-2434-2435-2436-2437-2438-2439-2440-2441-2442-2443-2444-2445-2446-2447-2448-2449-2450-2451-2452-2453-2454-2455-2456-2457-2458-2459-2460-2461-2462-2463-2464-2465-2466-2467-2468-2469-2470-2471-2472-2473-2474-2475-2476-2477-2478-2479-2480-2481-2482-2483-2484-2485-2486-2487-2488-2489-2490-2491-2492-2493-2494-2495-2496-2497-2498-2499-2500-2501-2502-2503-2504-2505-2506-2507-2508-2509-2510-2511-2512-2513-2514-2515-2516-2517-2518-2519-2520-2521-2522-2523-2524-2525-2526-2527-2528-2529-2530-2531-2532-2533-2534-2535-2536-2537-2538-2539-2540-2541-2542-2543-2544-2545-2546-2547-2548-2549-2550-2551-2552-2553-2554-2555-2556-2557-2558-2559-2560-2561-2562-2563-2564-2565-2566-2567-2568-2569-2570-2571-2572-2573-2574-2575-2576-2577-2578-2579-2580-2581-2582-2583-2584-2585-2586-2587-2588-2589-2590-2591-2592-2593-2594-2595-2596-2597-2598-2599-2600-2601-2602-2603-2604-2605-2606-2607-2608-2609-2610-2611-2612-2613-2614-2615-2616-2617-2618-2619-2620-2621-2622-2623-2624-2625-2626-2627-2628-2629-2630-2631-2632-2633-2634-2635-2636-2637-2638-2639-2640-2641-2642-2643-2644-2645-2646-2647-2648-2649-2650-2651-2652-2653-2654-2655-2656-2657-2658-2659-2660-2661-2662-2663-2664-2665-2666-2667-2668-2669-2670-2671-2672-2673-2674-2675-2676-2677-2678-2679-2680-2681-2682-2683-2684-2685-2686-2687-2688-2689-2690-2691-2692-2693-2694-2695-2696-2697-2698-2699-2700-2701-2702-2703-2704-2705-2706-2707-2708-2709-2710-2711-2712-2713-2714-2715-2716-2717-2718-2719-2720-2721-2722-2723-2724-2725-2726-2727-2728-2729-2730-2731-2732-2733-2734-2735-2736-2737-2738-2739-2740-2741-2742-2743-2744-2745-2746-2747-2748-2749-2750-2751-2752-2753-2754-2755-2756-2757-2758-2759-2760-2761-2762-2763-2764-2765-2766-2767-2768-2769-2770-2771-2772-2773-2774-2775-2776-2777-2778-2779-2780-2781-2782-2783-2784-2785-2786-2787-2788-2789-2790-2791-2792-2793-2794-2795-2796-2797-2798-2799-2800-2801-2802-2803-2804-2805-2806-2807-2808-2809-2810-2811-2812-2813-2814-2815-2816-2817-2818-2819-2820-2821-2822-2823-2824-2825-2826-2827-2828-2829-2830-2831-2832-2833-2834-2835-2836-2837-2838-2839-2840-2841-2842-2843-2844-2845-2846-2847-2848-2849-2850-2851-2852-2853-2854-2855-2856-2857-2858-2859-2860-2861-2862-2863-2864-2865-2866-2867-2868-2869-2870-2871-2872-2873-2874-2875-2876-2877-2878-2879-2880-2881-2882-2883-2884-2885-2886-2887-2888-2889-2890-2891-2892-2893-2894-2895-2896-2897-2898-2899-2900-2901-2902-2903-2904-2905-2906-2907-2908-2909-2910-2911-2912-2913-2914-2915-2916-2917-2918-2919-2920-2921-2922-2923-2924-2925-2926-2927-2928-2929-2930-2931-2932-2933-2934-2935-2936-2937-2938-2939-2940-2941-2942-2943-2944-2945-2946-2947-2948-2949-2950-2951-2952-2953-2954-2955-2956-2957-2958-2959-2960-2961-2962-2963-2964-2965-2966-2967-2968-2969-2970-2971-2972-2973-2974-2975-2976-2977-2978-2979-2980-2981-2982-2983-2984-2985-2986-2987-2988-2989-2990-2991-2992-2993-2994-2995-2996-2997-2998-2999-3000-3001-3002-3003-3004-3005-3006-3007-3008-3009-3010-3011-3012-3013-3014-3015-3016-3017-3018-3019-3020-3021-3022-3023-3024-3025-3026-3027-3028-3029-3030-3031-3032-3033-3034-3035-3036-3037-3038-3039-3040-3041-3042-3043-3044-3045-3046-3047-3048-3049-3050-3051-3052-3053-3054-3055-3056-3057-3058-3059-3060-3061-3062-3063-3064-3065-3066-3067-3068-3069-3070-3071-3072-3073-3074-3075-3076-3077-3078-3079-3080-3081-3082-3083-3084-3085-3086-3087-3088-3089-3090-3091-3092-3093-3094-3095-3096-3097-3098-3099-3100-3101-3102-3103-3104-3105-3106-3107-3108-3109-3110-3111-3112-3113-3114-3115-3116-3117-3118-3119-3120-3121-3122-3123-3124-3125-3126-3127-3128-3129-3130-3131-3132-3133-3134-3135-3136-3137-3138-3139-3140-3141-3142-3143-3144-3145-3146-3147-3148-3149-3150-3151-3152-3153-3154-3155-3156-3157-3158-3159-3160-3161-3162-3163-3164-3165-3166-3167-3168-3169-3170-3171-3172-3173-3174-3175-3176-3177-3178-3179-3180-3181-3182-3183-3184-3185-3186-3187-3188-3189-3190-3191-3192-3193-3194-3195-3196-3197-3198-3199-3200-3201-3202-3203-3204-3205-3206-3207-3208-3209-3210-3211-3212-3213-3214-3215-3216-3217-3218-3219-3220-3221-3222-3223-3224-3225-3226-3227-3228-3229-3230-3231-3232-3233-3234-3235-3236-3237-3238-3239-3240-3241-3242-3243-3244-3245-3246-3247-3248-3249-3250-3251-3252-3253-3254-3255-3256-3257-3258-3259-3260-3261-3262-3263-3264-3265-3266-3267-3268-3269-3270-3271-3272-3273-3274-3275-3276-3277-3278-3279-3280-3281-3282-3283-3284-3285-3286-3287-3288-3289-3290-3291-3292-3293-3294-3295-3296-3297-3298-3299-3300-3301-3302-3303-3304-3305-3306-3307-3308-3309-3310-3311-3312-3313-3314-3315-3316-3317-3318-3319-3320-3321-3322-3323-3324-3325-3326-3327-3328-3329-3330-3331-3332-3333-3334-3335-3336-3337-3338-3339-3340-3341-3342-3343-3344-3345-3346-3347-3348-3349-3350-3351-3352-3353-3354-3355-3356-3357-3358-3359-3360-3361-3362-3363-3364-3365-3366-3367-3368-3369-3370-3371-3372-3373-3374-3375-3376-3377-3378-3379-3380-3381-3382-3383-3384-3385-3386-3387-3388-3389-3390-3391-3392-3393-3394-3395-3396-3397-3398-3399-3400-3401-3402-3403-3404-3405-3406-3407-3408-3409-3410-3411-3412-3413-3414-3415-3416-3417-3418-3419-3420-3421-3422-3423-3424-3425-3426-3427-3428-3429-3430-3431-3432-3433-3434-3435-3436-3437-3438-3439-3440-3441-3442-3443-3444-3445-3446-3447-3448-3449-3450-3451-3452-3453-3454-3455-3456-3457-3458-3459-3460-3461-3462-3463-3464-3465-3466-3467-3468-3469-3470-3471-3472-3473-3474-3475-3476-3477-3478-3479-3480-3481-3482-3483-3484-3485-3486-3487-3488-3489-3490-3491-3492-3493-3494-3495-3496-3497-3498-3499-3500-3501-3502-3503-3504-3505-3506-3507-3508-3509-3510-3511-3512-3513-3514-3515-3516-3517-3518-3519-3520-3521-3522-3523-3524-3525-3526-3527-3528-3529-3530-3531-3532-3533-3534-3535-3536-3537-3538-3539-3540-3541-3542-3543-3544-3545-3546-3547-3548-3549-3550-3551-3552-3553-3554-3555-3556-3557-3558-3559-3560-3561-3562-3563-3564-3565-3566-3567-3568-3569-3570-3571-3572-3573-3574-3575-3576-3577-3578-3579-3580-3581-3582-3583-3584-3585-3586-3587-3588-3589-3590-3591-3592-3593-3594-3595-3596-3597-3598-3599-3600-3601-3602-3603-3604-3605-3606-3607-3608-3609-3610-3611-3612-3613-3614-3615-3616-3617-3618-3619-3620-3621-3622-3623-3624-3625-3626-3627-3628-3629-3630-3631-3632-3633-3634-3635-3636-3637-3638-3639-3640-3641-3642-3643-3644-3645-3646-3647-3648-3649-3650-3651-3652-3653-3654-3655-3656-3657-3658-3659-3660-3661-3662-3663-3664-3665-3666-3667-3668-3669-3670-3671-3672-3673-3674-3675-3676-3677-3678-3679-3680-3681-3682-3683-3684-3685-3686-3687-3688-3689-3690-3691-3692-3693-3694-3695-3696-3697-3698-3699-3700-3701-3702-3703-3704-3705-3706-3707-3708-3709-3710-3711-3712-3713-3714-3715-3716-3717-3718-3719-3720-3721-3722-3723-3724-3725-3726-3727-3728-3729-3730-3731-3732-3733-3734-3735-3736-3737-3738-3739-3740-3741-3742-3743-3744-3745-3746-3747-3748-3749-3750-3751-3752-3753-3754-3755-3756-3757-3758-3759-3760-3761-3762-3763-3764-3765-3766-3767-3768-3769-3770-3771-3772-3773-3774-3775-3776-3777-3778-3779-3780-3781-3782-3783-3784-3785-3786-3787-3788-3789-3790-3791-3792-3793-3794-3795-3796-3797-3798-3799-3800-3801-3802-3803-3804-3805-3806-3807-3808-3809-3810-3811-3812-3813-3814-3815-3816-3817-3818-3819-3820-3821-3822-3823-3824-3825-3826-3827-3828-3829-3830-3831-3832-3833-3834-3835-3836-3837-3838-3839-3840-3841-3842-3843-3844-3845-3846-3847-3848-3849-3850-3851-3852-3853-3854-3855-3856-3857-3858-3859-3860-3861-3862-3863-3864-3865-3866-3867-3868-3869-3870-3871-3872-3873-3874-3875-3876-3877-3878-3879-3880-3881-3882-3883-3884-3885-3886-3887-3888-3889-3890-3891-3892-3893-3894-3895-3896-3897-3898-3899-3900-3901-3902-3903-3904-3905-3906-3907-3908-3909-3910-3911-3912-3913-3914-3915-3916-3917-3918-3919-3920-3921-3922-3923-3924-3925-3926-3927-3928-3929-3930-3931-3932-3933-3934-3935-3936-3937-3938-3939-3940-3941-3942-3943-3944-3945-3946-3947-3948-3949-3950-3951-3952-3953-3954-3955-3956-3957-3958-3959-3960-3961-3962-3963-3964-3965-3966-3967-3968-3969-3970-3971-3972-3973-3974-3975-3976-3977-3978-3979-3980-3981-3982-3983-3984-3985-3986-3987-3988-3989-3990-3991-3992-3993-3994-3995-3996-3997-3998-3999-4000-4001-4002-4003-4004-4005-4006-4007-4008-4009-4010-4011-4012-4013-4014-4015-4016-4017-4018-4019-4020-4021-4022-4023-4024-4025-4026-4027-4028-4029-4030-4031-4032-4033-4034-4035-4036-4037-4038-4039-4040-4041-4042-4043-4044-4045-4046-4047-4048-4049-4050-4051-4052-4053-4054-4055-4056-4057-4058-4059-4060-4061-4062-4063-4064-4065-4066-4067-4068-4069-4070-4071-4072-4073-4074-4075-4076-4077-4078-4079-4080-4081-4082-4083-4084-4085-4086-4087-4088-4089-4090-4091-4092-4093-4094-4095-4096-4097-4098-4099-4100-4101-4102-4103-4104-4105-4106-4107-4108-4109-4110-4111-4112-4113-4114-4115-4116-4117-4118-4119-4120-4121-4122-4123-4124-4125-4126-4127-4128-4129-4130-4131-4132-4133-4134-4135-4136-4137-4138-4139-4140-4141-4142-4143-4144-4145-

K Komikia

Nando



Hi burutik jota hago!



» Uzturretik

Iraitz Lizarraga

Benetan garrantzitsua dena baztertzen eta hutsala dena puztutzen espezializatzen ari den

gizarte honetan, gaixotasun mentalen gorakada beldurgarriak nire interesa piztu du. Depresioa, antsietatea, jarrera bortitzak, inpotentzia, hiperaktibitatea, paranoia, eskizofrenia, angustia, segurtasun eza, nartzisismoa, egolatra, hipo-kondriakoa, jarrera berekoiak, Ediporen konplexua, Elektrarena, Diogenesen sindromea... Lehen soilik psikiatria edo psikologiako eskuliburutan topatzen genituen hitzak egunerokotasunean dabilzigu edonon; arrandegiko ilaran, igogailuan, baita ileapaindegiko el-

karrizketa surrealistetan ere.

Arinegi bataiatzen dugu edozein jarrera eta gaixotasun baten izena jartzen; medikuen jarrerak, ez du nire ustetan gehiegi laguntzen. Baina, non dago muga? Egun batez triste sentitzeak ez du zertan depresio baten lehen urratsa izan beharrik, baina medikuak berehala ematen digu trantze honetatik irteten laguntzeko pastilatxoa. Hegazkinak beldurra ematen dizula... pastilatxoa! Loak hartzea kostatzen zaizula... pastilatxoa! Lehen, kirioak airean dabilzkitedo

nerbioak jota nabil esaten genuen, orain berriz, antsietatea dugu, honen aurka... pastilatxoa!

Okerrena ordea, txikiak jastan dute, betiko moduan helduen ezjakintasun eta paranoiaren biktimabihurtzen direlarik: haurra ez dela geldirik egoten eta behar bezala kontzentratzea kostatzen zaiola eta eskolan aspertu egiten dela... bi aukera daude: edo superdotatua da edo hiperaktiboa; seguru bi kasuetarako tratamendu bereziak edo pastilatxoak badaudela.

Patologia konkretuak alde batera utzita, gure jarreraren analisi sakonegiak egiteko joera gero eta handiagoa dugu: tristura sentitzen dut, besteak baino gutxiago naize-

la sentitzen dudalako eta uste dut guzti honetan eragina izan duela, txikitan gurasoek nire sehaska hegoalderuntz orientatu izanak eta baita eman zidaten lehenengo txupetearen kolorea berdea izateak. Faktore hauek direla eta, gaur egun, nire jokaera besteekiko erasokorra da eta bla,bla,bla... Merezki al du geure burua eta besteena honelako sakontasunez aztertzeak? Ez ote ditugu gaixotasun asko sortu edo asmatzen, inkontzienteki bada ere? Izan gaitezen naturalagoak, baztertu dezagun tarteka arrazoia eta errebindika dezagun hanka sartzeko eskubidea! Seguru honela zoriontasuna, edo antzeko zerbaite, gertuago izango dugula.

H Hilberria

GREGORI LASA ARTOLA

GURE AMONA

Irailaren 3an hil zen, 83 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

- Goian bego -

Zuk emandakoa
Zuk erakutsitakoa
Bihotzean daramagua
Eskerrik asko amona

MAITE ZAITUGU

Zure bilobak: Ainhua eta Mikel, Irati, Maitane, Izaro, Stefy, Ane, Ion, Iñigo eta Xabier



TOLOSA
2010eko irailaren 5a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

Gutunak

Josune Arretxe: Hamaika herri, borroka bakarra

Las campañas de los pueblos solo son débiles, cuando en ellas no se alista el corazón de la mujer
Jose Martí

Zorigaitoren batek Villabonako Ezker Abertzalea osatzen dugun emakume eta gizonezkoak kolpatzen jarraitzen duela pentsatzen gaude, etenik gabe. Irailaren leian, Villabonako herritar asko asaldatu eta tristoraz bete zituen berria jaso genuen, beste behin ere, Josune Arretxe Amasako bere etxean, Alfonsinaen, zendu da.

Malko ia gutxi geratzen zaigu baina denok gogoeta berbera egin dugu, aho txikian: urtebeteren buruan Villabonako herriak balore humano eta politiko neurgaitzak zituzten bi pertsona galdu ditu, Remi Ayestaran eta Josune Arretxe. Biak Euskal Herriko zeru gainean izar bihurtu zaizkigu, askatasunaren aldeko borrokan burkide eta lagun izan dituzten haien ondora joan zaizkigu. Eta aitortu be-

har, lur jota geunden eta orain ez gara askoz hobeto geratu.

Josune Arretxe nolakoa zen hitzez Euskal Herri osoari adierazteko saioa duzue hauxe. Lan nekeza hauxe baina saiatu beharko gara. Uztailaren 31n ikusi genuen publikoki azken aldiz, Remi Ayestaran bere Udal kide eta lagunaren aldeko omenaldian, billabonatar guztiak malkotan utzi zituen, gaxorik baina indartsu, Remiren hitzgia bezala izendatu zuen idatzia irakurri zuenean. 15 hitzez osatu zuen aipatu hitzgia.

29 urte zituen. Gure buru eta gogoak, orain, Aritz senarra eta Ixiar, Jexu eta haren bi anaiekin daude, Mikel eta Arkaitzekin. Eta amasar guztien ondoan. Jakin bai baitakigu zenbat maite zuten amasarrek Josune.

Gaztea, emakumea, konprometitua, euskaltzale porrokatua, ezkertiarra, gainerako munduko herriekin -borrokan dauden herriekin- lanerako grina berezia adierazten zuen emakumea (zein gogoan ditugun egunotan Segundo Montes komunitateko gure lagun burkideak), Villabonako Uda-

lean eta herrian arrastoa utzi duena, intelektualki konprometitu, herri honen askatasuna ikuspegi historiko eta sozialetik arrazoitzen gutxi bezala zekiena Villabonan, euskal estatuaren aldeko defendatzaile sutsua, Amasaren eta amasarraren eskakizun eta ametsak inork ez bezala defendatu zituen, Ezker Abertzalean asko maite izan dugun pertsona, azken urte hone-

tan bere gaixoaldia nola eraman duen ikusita, bere zintzotasunak eta kemenak ileak harrotu arazi dizkiguna, Remiren heriotzaren ondotik bere indar apurrak Ezker Abertzalearekin konpartitzen jakin duena, Villabonako Jaietan bere presentziak askotan hunkitu gaituen. Emakumearen alde, Villabonan alor instituzionaletik behintzat, lan egin duen lehen

emakumea. Herri eta nazio gisa identitate forma ezberdinak (kantua, ohiturak...) gorde behar direnaren ueste sendoa zuena, Nafarroari buruz lehen aldikoz Villabonan hitz egin zedin bermatu zuen historialari ameslaria, gaixo bai baina tuntunduta ez bere azken urteko bizi lelo egin zuena. Zintzotasuna alde guztietatik zerion gaztea. Hiltzeko ere bere duintasuna borrokatu duen emakume leiala. Politikaren bitartez, herri hau Europan nazio handia izan daitekeela oso argi zuena. Independentzia beste aukerarik ez dugula oso garbi zuena. Baserriarra izateaz harro, baserriaren ekarpena, natur eta ekologia ikuspegitik, kalekumeak garenoi azaltzen saiatu zena.

Horixe zen Josune.

Eta min handia badaukagu ere, Remiri zor diogun bezala Josuneri ere zorretan gaudelako borrokan jarraituko dugu herri berri bat eta mundu berri bat eraikitzeko. Zuen ametsak egi bihurtzea gure kontu, kamaradak. Maite zaituztegu!

Karlos Almorza eta Esti

Amenabarro. Amasa-Villabonako Ezker Abertzaleko kideak.



Irailaren argia iritsi da Tolosako azokara

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna alai eta animoso hasi zen goizeko lehen orduetatik. Nabaritu genuen asko izan direla euren oportunitate buektatu direnak, eta azokako giroa ikusita, Tolosa bete-betea dagoela esan dezakegu.

Eskaintza oraindik, guztiz udakoa izan zen, baina pixkanaka sumatzen ari da udazkenaren gertutasuna. Atzo adibidez, eta nobeda-

de bezala aurtengo lehenengo babarrun beltzak izan ziren salgai, baita aurtengo lehen urrak ere; hauekin babarrun zuria, sagarrak, udareak edota aranak aurki zitezkeen.

Udako barazkien artean, tomate, piparrak eta lekak izan ziren ugari postuetan. Hauekin letxugak, eskarolak, pepinoa, kalabazina, kalabaza, berenjena edota patata aipatu ditzakegu.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA	Merk.	Gares.
Landareak		
Alegria	1,50	2,00
Geraneoa	2,00	-
Menta	1,00	-
Albahaka	1,00	-

BERTAKO PRODUKTUAK		
Perretxikoak		
Onddoak	24,00	28,00
Ziza horia	15,00	18,00
Gibelurdina	26,00	-
Onddoak poteetan	9,00	-

Fruta		
Kiwi	3,50	-
Sagar gorria	1,00	2,00
Arana gorria	1,00	-
Arana Claudia	2,00	-
Arana horia	2,00	-
Udare Konferentzia	1,00	-
Udare txikia	1,00	2,00
Urra berria	4,00	4,50
Intxaurra	4,00	-

Barazkiak (kiloa)		
Tipula berria	1,50	-
Babarrun zuria (lekan)	10,00	-
Tomatea	3,00	4,00
Potxak lekan	10,00	-
Porrak	1,00	4,00
Babarrun beltza	12,00	-
Bainak	3,00	3,50
Patata berria	1,50	2,00

Barazkiak (sorta)		
Ziazerba txuria	0,75	-
Erremolatxa	1,50	2,00
Tipula	0,80	1,00
Azenarioa	1,20	5,00
Espinaka	2,00	3,50
Porrak	1,50	3,00

Barazkiak (unitatea)		
Eskarola lisua	1,00	1,50
Eskarola rizatua	1,00	1,50
Azalorea	1,00	1,25
Trebisoa	0,50	-
Letxuga	0,50	0,80

www.euskalherriko

plaza.com

skunkfunk %20

Lehen: 31,53 €
Orain: 25,22 €

Lehen: 19,83 €
Orain: 15,86 €

Lehen: 66,12 €
Orain: 52,9 €

okot %20

Lehen: 28,48 €
Orain: 22,78 €

Lehen: 57,17 €
Orain: 45,74 €

Lehen: 28,48 €
Orain: 22,78 €

TTAK 2 elastiko 35€

20 €

20 €



Izaskungo Bandera Bonberenea Sutanek irabazi zuen atzo Oria ibaian. I. GARCIA



Elduainen zaldiek eta haurrek izan dute protagonismoa. I. GARCIA



Lizartzan eguzkitakoak jarri zituzten eguzkiari aurre egiteko herri bazkarian. ESTI EZEIZA



Alkizan herritarren arteko futbol partidak jokatu zituzten atzo. ESTI EZEIZA

Azken txanpan sartu dira

Festak » Lizartza, Elduain, Alkiza eta Tolosako Izaskun auzoko festak pixkanaka aurrera egiten ari dira eta azken egunak ere iristen hasi dira.

ERREDAKZIOA

Iraileko lehen festei azken eguna iristen ari zaie. Baina, bitartean, atzoko egunean hainbat ekitaldi interesgarri izan ziren eskualdeko hainbat herritan. Lizartzan ehun bat lagun elkartu ziren bazkari herrikoia egiteko. Sekulako eguzkia egiten zuenez, itzala inprobisatu

beharrean aurkitu ziren, eta tabernetatik eta etxeetatik eguzkitakoak eraman behar izan zituzten. Horrek zertxobait atzeratu zuen bazkaria, baina eguzkitakoen aitzakian hamaika broma entzuteko aukera izan zen.

Elduainen goizean zaldien eta haurren txanda izan zen. Herriko

haur gehienak zaldiaren gainean edo zaldiak tiratutako gurdian ibili ziren. Azken honetan ibili ziren herriko txiki gehienak, eta nola ez, gustura zeharkatu zuten herria gurdien gainean; zenbait zatietan gainera, dezenteko abiaduran ibili ziren.

Tolosako Izaskun auzoa Oria ibairaino zabaldu zen atzokoan, Izaskungo Bandera jokoa izan baitzen hiru traineruren artean. Bonberenea Sutan, Bonberenea eta Izaskun Auzoa lehiatu ziren. Finalera Bonberenea Sutan eta

Izaskun Auzoa iritsi ziren. Izaskun Auzokoek ez zuten irteera ona egin eta hor galdu zuten Bandera, helmugan sei segundo bakarrik atera baitzieten Bonberenea Sutanekoek. Jende dezente joan zen ikuskizunera eta Bonberenea Txarangakoek giroa alaitu zuten.

Alkizan, atzo arratsaldean pitxoi tiraketa eta futbol partidak egin zituzten. Futbolearen aurretik emakumezkoak aritu ziren eta ondoren gizonezkoen txanda izan zen. Ezkonduak ezkongabeen kontra jokatu zuten herritar ugari begira zituztela.

» GAURKO EGITARAUAK

ALKIZA

- 10:00. Meza Nagusia.
- 11:30. Bizikleta lasterketa herritar helduentzat.
- 12:30. Txakolin dastaketa.
- 17:00. Asto lasterketa.
- 18:00. Beteranoen arteko XIX. Pilota txapelketaren finala. Ondoren, Bide Batez taldearekin erro-meria.

ELDUAIN

- 09:45. Meza nagusia Santa Katalina elizan. Ondoren, hamaiketakoa: sardinak, txakolina eta ardoa.
- 12:30. Pilota partidak herriko pilotarien eskutik.
- 17:30. Zaldien Doma, Mirandako belazean.
- 18:30. Dantza ikuskizuna. Askan taldeak, Maculele, Kapoeira eta

Batukada eskainiko ditu.

- Ondoren. Trikitixa herriko plazan, Arruti eta Belokiren eskutik.

IZASKUN AUZOA

- 09:30. Diana Tolosako Udaltxistulari Bandaren eskutik.

LIZARTZA

- 10:00. Goizdeia Lizartzako gaiteroekin.
- 11:30. Herriko gazteen pilota partidak eta ondoren zesta punta partida jokatu da.
- 13:00. Poteoa Lizartzako gaiteroekin.
- 17:00. Mus Txapelketa Joxe Marin izango da.
- 18:00. Dantza soka.
- 19:30. Antzerkia: Oteiza/Gizartea.

berria bekak
2010

NORENTZAT:

- Unibertsitate titulua duten gazte esperientzia gabeentzat
- Prestakuntza teoriko-praktikoa jaso eta karrera profesionala bideratu nahi dutenentzat

Kazetaritza arloa: **zortzi beka**, horetako bat, bideo informatiboak lantzeko.

Ezaugarriak:

- Bederatzik hilabeteko iraupena, urritik ekainera
- Astean lau eguneko jarduna
- 6.255 euroko diru laguntza
- BERRIAK Andoain duen egoitza nagusian edo ordezkaritzetan

Zuzenketa-itzulpengintza arloa: **beka bat**.

Ezaugarriak:

- Hamabi hilabeteko iraupena, urritik irailera
- Astean lau eguneko jarduna
- 8.340 euroko diru laguntza
- BERRIAK Andoain duen egoitza nagusian

Eskaerak aurkezteko azken eguna: 2010-09-08
Eskaera egiteko orria eta beka deialdia www.berria.info helbidean dago eskuragarri

aukera ezazu, **BIZI** euskaraz **berria**



Hamaiketakoaren aurretik futbolearen aritu ziren gazteak. E. EZEIZA

Gaztetxekoek eman diete ongi-etorria belaunaldi berriari

Anoeta » Urtero bezala, ikasturteari ekitearekin batera, Gazte Asanbladako kide berriei harrera egin diete festa giroan.

ERREDAKZIOA

Gazte Eguna ospatu zuten atzo Anoetan. Urtero iraileko lehen larunbatean egiten dute jaialdia Gazte Asanbladako kideek. Honekin, alde batetik, gazte belaunaldi berriei ematen diete ongi-etorria, eta bestetik, aurreko urtearen balorazioa egiten dute.

Eguna behar den bezala eta indarrez hasteko, gosaria egin zuten. Jarraian, asanblada egin zuten. 16 urte egitean belaunaldi horri Gaztetxean eta gazte asanbladan parte hartzeko gonbitaluzatzen zaio, eta hori egin zuten atzo ere. Bileran, taldearen funtzionamendua, helburuak eta abar azaldu zizkieten. Honez gain, aurreko ikasturtearen balorazioa egin zuten, eta bertan egon ziren hutsuneak plazaratu, aurrera begira, zer dagoen hobetzeko ikusteko.

Asanbladaren ostean, sagardo dastaketa eta hamaiketako egin zituzten. Euskal ohiturei jarraituz, mahaiaren bueltan ospatu zuten Gazte Eguna, hala, hamaiketakoaren ostean, bazkaria egin zuten. 60 lagun inguru elkartu ziren paella jatera. Honen ostean, hau jaisteko, poteo animatua egin zuten. Horretarako bozgorailuekin, eta musika ekipoarekin karro bat atondu zuten, eta jaigiroa herri guztira zabaldu.

Afalostean, ekimen berezi bat berreskuratu zuten. Hala, zenbait herritarrek *Printzesa txikia* antzezlanak aurkeztu zuten. Duela urte batzuk, Gazte Egunerako, herriko hainbat gaztek antzerki bat prestatzen zuten, baina, egitasmoa bertan behera geratu zen, eta orain berreskuratzea erabaki dute. *Printzesa txikia* lan ezaguna nesken ikuspuntutik aurkezteko erabaki zuten. Honez gain, anoetarrak arduratu dira euskaratzeaz eta atrezoa egi-teaz. Gazteak ez ezik, helduak eta haurrak ere hurbildu ziren Gaztetxera lana ikusteko. Egunari amaiera musikarekin eman zioten, kontzertuak izan baitziren.



Paella jatea egin zuten bazkaltzeko; goizean zehar sukaldatzen aritu ziren. E.E.



Hondartza giroa Euskal Herria plazan

TOLOSA » Azken egunetan Euskal Herria plazak hondartza itxura hartu du Udarako Azken Festarekin. Haurrak futbolearen aritu dira eta helduak boleibolearen.

Ostiralean kanporaketak egin ondoren, atzo ilunabarrean amaitu zen boleibol txapelketa. Giro ederra izan zenez, jendea erruz bildu zen plazan. I. GARCIA

Irudikatu mundua BERRIArekin

Gozatu berria

Egin harpidedun eta jaso
ARGAZKI KAMERA HAU OPARI.

Ezaugarriak:

- Kamera digitala, 9 megapixelekoa
- TFT pantaila, 2,4 hazbetekoa
- Irudien beizimena ezin hobea, 16 megapixel artekoa, software interpolazioa erabiliz
- Zoom digitala, x8, argazkiak handitzeko
- Mugimenduko JPEG bideo formatua
- Mikrofonoa
- SD memoria txartelak onartzen ditu, baita 8 GBkoak ere

Orain, beste arrazoi bat BERRIAren harpidedun izateko.

Ezaugarriak:
samsung LE 32C450

Telebista 32 hazbeteko pantaila laua du, eta D-Link® nudi prozesadorea, USB 2.0 ataka bat du, HDMI hargune bat, PCrako sarrera bat eta eurokonektore bat audio eta bideo konfigurazio guztietan lotzeko.

Urriaren 15ean,
telebista hau zotz egingo dugu
BERRIAren harpidedunen artean,
Elektraren eskutik.

elektra
www.elektragaliak.com

Harremanetarako: 943-30 43 45 • harpidetza@berria.info

Aukerazazu, **bizieuskaraz berria**

E Elkarrizketa

«Baltistanen lehentasuna errepideak irekitzea da»



Gizartea » Zazpi gazte Pakistanera abiatu ziren trekking bat egiteko asmoz, baina bertan izandako uholdeen ondorioz, plana aldatu behar izan zuten.

JONE GOROSTARZU

Abuztu hasieran Aritz Pereda (Tolosa), Iban Salsamendi (Tolosa), Gorka Telleria (Tolosa), Irati Ulazia (Albiztur), Aritz Usandizaga (Larraul), Arrate Iturbe (Tolosa) eta Manex Martinez (Tolosa) mendizaleak Pakistango Baltistan bailarara abiatu ziren turista moduan. Baina herrialdeak jasan zituen uholdeak direla eta goitik behera aldatu zitzaizen bidaia, eta baita izandako bizipenak ere.

Zein asmorekin joan zineten zuek hasiera batean Pakistanera?

Gorka Telleria: Gure asmoa Balteroko trekkinga egitea zen. Zazpi lagun joan ginen, eta gutako bat lehengo urtean han egon zenez Felix Baltistan fundazioa dagoen Machulu herria ere ikusi nahi genuen.

Noiz jakin zenuten uholdeak gertatu zirela?

Irati Ulazia: Bartzelonako aireportuan esan ziguten uholde nahiko gogorrak izan zirela, arazoak zeudela eta jendea sufritzen ari zela, baina gu nahiko lasai geunden.

Iban Salsamendi: Baina hona etorri arte ez dugu ondo jakin zer gertatu zen, hemengo jendeak kontatu dizkigu hango gauzak. Guk uholdeak ez ditugu ikusi, baina bai zubiak hautsita, bideak itxita eta errekek hazita.

Zerekin egin zenuten topo hara iritsitakoan?

G. T.: Lehenengo hiru egunetan Islamabaden izan ginen, hiriburuan, eta han ez zegoen ezer, dena normal zegoen. Gero Skardura joan behar genuen. Mendira joateko azken herri handia da, eta bi aukera genituen; hegazkinez ordu betean joan, edo gero kotxez bi egunetan.

I. S.: Guk kotxez joan nahi genuen, politagoa zela esan zigutelako, baina ikusteko. Baina bide hori itxita zegoen, hegazkina kolapsatuta, eta gidak ere ez zekien nondik joan. Azkenean herri txiki batetik zihonan beste bide bat hartu genuen, eta hegazkinez ordubeteko bidea zena hiru egunetan egin genuen, jeepetan.

Nolako izan zen bidea?

G. T.: Hasieran bidea jarraitu genuen zubi bat hautsita topatu arte. Egundorretan eta furgonetan ezin genuen pasa. Beraz, han lo egin genuen eta zubi batzuk egiten aritu ginen bertakoekin, ingelesek orain dela urte batzuk egindako zubiak bota egin zituen eta urak.

I. U.: Ibaia oso azkar zihonan, harriak entzuten genituen ibai azpian bueltaka. Guk hasieran luiziak zirala pentsatzen genuen eta gora begiratzen genuen, baina ur azpian zihozten harriak ziren.

I. S.: Furgoneta utzi eta jeepetan jarraitu genuen bidaia, zortzi edo bederatzi ordu egunean. Kotxean pasa ezin genuen erreka batera iristen ginenean erreka oinez pasatzen genuen; zuhaitzak eta bota-

ta zeuden, eta gainetik pasatzen ginen, gero beste kotxe bat hartzeko. Karakorume bidea hartu genuenean, Txina aldera doana, ondo zegoen eta beste egun bat egin genuen kotxez. Gidak urteak daramatza lanean baina inoiz ez zen bide horretatik pasa. Azkenean iritsi ginen eta trekkinga egin genuen.

Prestatuta ikusi al zenituzten bertakoak horrelako ezbeharrak aurre egiteko?

Aritz Pereda: Azpiegitura aldetik ez, ez daukate errekurtsorik, baina mentalki bai. Zubia erortzen bazen beraiek berehala hasten ziren lanean, harriak jartzen. Lanerako prest zeuden.

I. U.: Beraiek pentsatzen dute gertatua Alak nahi izan duelako gertatu dela, eta ez diote buelta gehiagorik ematen, etorri bezala hartzen dute.

Nola antolatu zen laguntza uholdeen ondoren?

G. T.: Laguntza hegualdera joan zen. Gu egon ginen zonaldera, Baltistanera, bidea itxita zegoenez ez zen gasolinarik iristen, eta, beraz, laguntzarik ere ez. Zubietatik, asko

jota, kotxeak pasa zitezkeen, kamioirik ez. Hirugarren astean iritsi zen militarren laguntza.

I. S.: Kanpotik lanean ari dira. Felix Baltistan fundazioatik bi kooperante daude bertan lanean, Talish herrian laguntza entregatu zuten, janaria eta. Orain fundazioak kontu korronteak ireki ditu jendeak diru ekarpenak egiteko.

«Azpiegitura aldetik ez daukate errekurtsorik, baina mentalki bai; lanerako prest zeuden»

«Talixhen 30 hildako izan dira luiziengatik; orain, erregairik eta produkturik ere ez zaie iristen herrira»

Zer galera sumatu dituzue? Eta zein motatako laguntza behar da orain?

I. U.: Talishen hogeita hamar hildako izan dira, luiziengatik.

I. S.: Ikusi genuen errepidea itxita zegoenez patata ezin zutela saldu eta usteltzen ari zitzaizela, izugarritzko usaina zegoen. Bidea irekitzen ez badute ezin dute ezer saldu eta erosi, hori da lehentasuna. Hori lortuz gero ongi moldatuko dira.

G. T.: Gu egondako lekuan garrantzitsuen errepideak irekitzea da. Janaria badaukate, arroza eta talo antzeko txapatiarekin moldatzen dira. Horretan gu baino gogorragoak dira. Arazoa da erregairik eta produkturik ez zaiela iristen.

Mendiko turismoari lotutako azpiegitura asko ikusten al da?

I. S.: Turismoa ez da ia ikusten, joaten den jendea mendira joaten da. Urteak daramatzate espedizioak egiten, eta, hala ere, portadoreak

Iragarki laburrak

ALOKAIRUA


■ **Baserria edo borda.** Baserria edo borda bat hartuko genuke alokairuan Tolosaldean edo Leitzaldean. Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbakira: 634 45 9110.

LANA

■ **Igeltseritza eta pintura.** Teiltatu eta etxe barruen erreforma

orokorra eta orokorrean igeltseritza eta pintura lanak egiten ditut Tolosaldean, Leitzaldean eta Donostialdean. Interesatuak deitu 656 41 02 80 edo 943 65 184 telefono zenbakira.

■ **Zerbitzaria.** Amezketako jatetxe batek zerbitzaria behar du asteburuetan lan egiteko. Interesatuak deitu 605 72 77 30 telefono zenbakira.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

PEREDA, SALSAMENDI, TELLERIA, ULAZIA ETA USANDIZAGA Mendizaleak

orain dela hogeita hamar urteko arroparekin ibiltzen dira; zapatilekin, sandaliekin... izotzetan ere txankletekin ibiltzen dira.

G. T.: Espedizioek uzten duten dirua ez dakigu nora joaten den, gobernura eta baimenetara, ziur asko. Esaten dute nabaritu dela hobekuntza bat, baina errepideak ere, nahiz eta jende asko pasa hori mendi ezagunetara joateko, lurrezkoak dira. Ez dago prestatuta turismorako. Lehen japoniar asko joaten omen zen, albarikokei loretan argazkiak egitera, baina orain terrorismoarekin beldurtuta edo daude eta gutxiago joaten dira. Horregatik diote bertakoek ondo hitz egin behar dugula beraietaz.

I. S.: Baina gero lasaia da. Hiriburuari bai, militar asko daude, eta hotelean jendea armekin ikusi genuen. Baina oso ondo hartzen zaituzte.

Ziur asko bidaia honetan Pakistanen beste errealitate bat ezagutzeko aukera izango zenuten. Zerk harritu zaituzte gehien?

A. P.: Jendeak harritu nau gehienbat. Gu aurreiritzi batzuekin joan ginen, musulmanak direla, atentatuak direla... baina lehen unetik oso tratu ona izan genuen, gertuko jendea da.

I. S.: Beraiek oso kezkatuta daude munduan duten irudia dela eta; gure herrialdera etorritakoan be-

raietaz ondo hitz egiteko esaten zizuten.

I. U.: Oso ondo zaindu gaituzte, dena eman digute, zuten onena. Beraiei, gainera, turismoa komeni zaie.

Nolakoa da emakumearen egoera Baltistanen?

I. U.: Emakumeek lan asko egiten dute, nekazaritza eta. Gu izan ginenean Ramadanean zeuden, eta emakumeak ikusten ziren hogeita hamar kilo bizkarrean hartuta, goizeko lauetatik ezer jan gabe eta

Felix Baltistan fundazioak hiru kontu korronte ireki ditu jendeak laguntza ekonomikoa eman dezan

arratsaldeko bostetan oraindik lanean, eta gizonak denbora pasa bide izkinkan eserita.

I. S.: Jeep batean gindoazenean emakumeak pasa eta burua jiratzten zuten. Hori dela eta, guk harremana gizonetakoekin izan genuen. Etxeetara joandakoan ere normalean gizonekin egoten ginen, emakumeak ez ziren ikusten. Emakumeak beraien artean oso lotuta daude, eta emakumea bazara agian irekitzen zaizkizu, baina gizonekin ez dute hitz egiten.

G. T.: Agian hori beheko herrietan nabarmenagoa zen. Goialdeko he-

rri txikietan parean pasatakoan behintzat begiratu egiten zizuten, ez zuten buelta ematen.

Felix Baltistan fundazioa bertan egiten ari den lana ikusteko aukerarik izan al duzue?

I. S.: Machulun fundazioak egindako ur bonbak ikusi ditugu. Herri horiek uraren bitartez bizi dira; glaziarreko ura herrira erortzen da eta ur hori terrazetan jasotzen dute, eta herritar bakoitzak bere ordutegia du gero ur hori hartzeko. Badaude urez justu ibiltzen diren urte garaiak, eta Felix Baltistan fundaziokoek beraien laguntzaz bonbapare bat jarri dituzte erreka-ko ura aprobetxatu eta terrazak urez betetzeko.

I. U.: Eskoletan ere lan handia egin dute, batez ere neskak eskolarazten.

Euskal Herrira itzuli eta gero, jarraitzen al duzue bertakoren batekin harremanetan?

G. T.: Orain ez, gure gidak ez daki ingelesez irakurtzen eta. Baina ondo egongo direla uste dugu; beraiek beste era batean hartzen dituzte gauzak. Oso gogorrak dira gure aldean.

FELIX BALTISTAN FUNDAZIOA LAGUNTZA ESKE

Felix Baltistan fundazioa 2001ean sortu zen, Machuluko eta inguruko herrietako biztanleei laguntzeko helburuarekin, haien eguneroko bizitzako oinarriko premia batzuk hobetzen saiatuta: hezkuntza, nekazaritza, azpiegiturak... Modu apalean izanik ere, inguru haietara joandako euskal mendizaleei eskainitako harrera onaren ordaina eman nahi zitzaion.

Fundazioak garbi izan du hasieratik laguntza eskaintzeko proiektuek zein filosofia izan behar duten. Machuluko herritarrei garatzen laguntzeko baliabide eta azpiegiturak eskaini nahi dizkio, oraingoak bezalako une jakin batzuetan premia bereziei aurre egiteko janari eta dirua ere bidali bada ere.

Pasa den abuztuaren 7an, fundazioaren Felix Iñurrategi mendi eskola dagoen lekutik bi kilometrotara dagoen Talish herrian, lokatz, ur eta harritzko jasa izan zuten eta, ondorioz, herriaren zati handiena aurretik eraman zuen, hildakoak, desagertuak, zaurituak, etxe puskatuak, utzak, animaliak etab. utziz. Felix Baltistan Fundazioa ONG espezializatu bat ez izatean, ezin du larrialdietarako diru fondoetatik ezer lortu eta beste behin, nazioarteko laguntza humanitarioa ez da Baltistan bailararaino iristen.

Hori dela eta, fundazioak jendearen laguntza eskatu du, eta hiru kontu korronte zabaldu ditu Euskal Herrian, denen artean diru pixka bat lortzeko eta hau horrenbeste behar duen Pakistango Talish herrira bidaltzeko. Ekonomikoki lagundu nahi duenak kontu hauetakoren batean egin dezake bere ekarpena:

BKK 2095 0038 519103522251
Kutxa 21010038 510011074747
Laboral 3035 0044 85 0440018830

Egoerari buruzko azken berriak irakurtzeko, berri, eta zer gertatu den hobeto jakiteko fundazioaren web orria bisita daiteke: www.felix-baltistan.org.



Uholdeen ondorioz inkomunikatuta geratu da Baltistan. HITZA

AUKERA HANDIA ETA GUZTIA

Kalitatezkoa

EDARIAK

ELIKAGAIAK

JANTZIAK

DISKOAK, LIBURUAK, DVDak...

ESKULANGINTZA

400

SARTU ETA EROSI GUREAN

www.euskalherriko **plaza.com**

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta
Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai
Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Norwegian bitxikeria, Nafarroan edertasuna



TOLOSA

«Uztailan Norvegiako Stavangerren, laku inguru-paseotxo bat ematen ari ginela, zuhaitz artean honako argazki bitxi hau ateratzeko aukera izan genuen. Hango haurrek ere badute txupetea non utzia». LEIRE GARMENDIA BERAESTEGUI



ALEGIA

«Urederrako argazki polit hau bidaltzen dizuet, Euskal Herrian ere, paisaia ederrak aurki ditzake-gulako». MAITANE ARRAIET GARMENDIA

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak
ezkontzak - jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

A Agenda

Deialdiak

- **Anoeta.** Asteartean, hilak 7, 19:00etan, Euskal Jaia antolatze-ko bilera egingo da udaletxean. Dei egiten zaie herriko taldeei eta herri-ritar orori bertan parte hartzera.
- **Leitza.** Gaur 10:00etatik aurrera, Taloaren eguna ospatuko da. 12:00etan herri kirol jaialdia egongo da. Alde batetik aizkolari gazte-ak lehiatuko dira eta bestetik txin-ga-eroaleak.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Etxebeste. Gernikako ar-bola, 3. 943 6510 40.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

argazki lehiaketa

XII. HITZA
Argazki
Lehiaketa
Animatu eta
parte hartu!

NORA
BIDALI?

argazkiak@tolosaldeko-hitza.info helbide elektronikora
Irailak 30 arte

HITZA udarako argazki lehiaketa

1. Saria

EAKo Andutza lan-pertsonentzako bi...

2. Saria

Getariako Gure Ametxean bi pertsonentzako bi...

3. Saria

Gorrotxategi Gozoko eskeinitako saski be...